

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko abuztuaren 14tik abuztuaren 18rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: EUROGUNEKO BPGd / KPI



### Datuaren analisisia

Euroguneko ekonomiak aurreikuspenak bete zituen eta % 0,6ko hazkundera izan zuen urteko bigarren hiruhilekoan, 2017ko lehen hiruhilekoan erregistratutako hedapena baino hamarren bat gehiago. Iazko epe berarekin alderatuta, Euroguneko BPGd-aren hazkundera % 2,2koa izan zen. Espainiako hazkundera, bestalde, % 0,9koa izan zen bigarren hiruhilekoan, eta euroguneko hazkunderik handiena izan zuten ekonomien artean kokatu zen berriz ere.

Euroguneko inflazioa, bestetik, egonkor mantendu zen uztailean. Eurostatek egindako aurreikuspenak bete ziren eta urte arteko inflazioa urteko baxuena izan zen, % 1,3koa, ekaineko datu bera. Aitzitik, energia eta elikagai freskoen prezioen eragina kanpoan uzten duen azpiko inflazioa % 1,2 igo zen.

### Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkundera ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Eurogunek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalan ekoizitakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik. KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: EBZren AKTAK



#### Datuaren analisia

Europako Banku Zentraleko kideek euren kezka agertu zuten azken asteetan euroak izandako igoeragatik, inflazioa eta hazkundea oztopa ditzakeelako. Horrez gain, EBZk adierazi zuen euroguneko hazkunde ekonomikoa "sendotzen" ari dela, finantza-baldintzak lagun dituelako. Baldintza horiek, hala ere, EBZren diru-politika hedakorraren mende daude. Bestalde, aktetan jasotakoaren arabera, erakundeak ez zuen nahi bere diru-politikari buruzko ideiak goizegi jakinaraztea, eta bere hurrengo mugimenduen joera mantentzen zuen. EBZren mezu bigun horrek Europako banku-sektoreari eragin zion batez ere; sektore zigortuena izan zen.


#### Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentralean Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakunde da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak bultzatu beharko ditu ere, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: XEHEKAKO SALMENTAK / MICHIGANEKO UNIBERTSITATEKO SENTIMENDUA



### Datuaren analisia

Xehekako salmentek % 0,6 egin zuten gora uztailean (% 0,3ko igoera espero zen); urteko igoerarik handiena, beraz. Halaber, ekaineko datua % 0,3ra berrikusi zen (aurrekoa % 0,2). Abendutik lortzen ez zuten maximoetara heldu ziren, arropa eta gasolina kenduta, ondasun gehienek salmentek gora egin zutelako. Azken urtean, % 4,2 egin dute gora, azken bost urteetako batez bestekotik hurbil dagoen erritmoan.

Bestetik, Michiganeko Unibertsitateko Sentimenduak hobera egin zuen abuztuan, eta azken sei hilabeteetako mailarik altuenera iritsi zen; aurreko hileko 93,4tik 97,6ra igo zen indizea, espero zen 94aren aldean. Hobekuntza hori indizearen espektatibek osagaiaren gorakadari zor zaio, uztaileko 80,5etik 89ra igo baitzen. Oraingo baldintzen neurketa, berriz, 113,4tik 111ra jaitsi zen.

### Adierazlearen azalpena

Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra erakusten du. Hilero enpresei egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero, eta Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: FEDen AKTAK



#### Datuaren analisia

Erreserba Federalak ez zuen zalantzarik izan bere balantzearen murrizketaren inguruan, baina desadostasunak izan zituzten hura murrizten hasteko unerik egokiena aukeratzeko orduan. Izan ere, erakundeko hainbat kontseilarik hasiera-data baten berri emateko asmoa agertu zuten, nahiz eta azkenean ez zen datarik iragarri. Halaber, Erreserba Federaletako kideak oso kezkatuta agertu ziren inflazio ahula erakusten zuten datu argitaratu berriekin. Zenbaitek, gainera, tasen igoera gelditzeko eskatu zuten, prezioen maila baxuen joera behin-behinekoa zela argi izan arte.

#### Adierazlearen azalpena

Fed-en aktak Erreserba Federalaren bilera egin eta bi aste geroago argitaratzen dira. Batzordearen diru-politikari buruzko bileraren erregistroak dira. Gainera, diru-politikaren inguruan FEDek duen jarrerari buruzko informazio zehatza eskaintzen dute. Informazio hori arretaz aztertzen da, intere-tasen inguruko etorkizuneko erabakien emaitzari buruzko zantzuak aurkitzeko.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: BPGd



### Datuaren analisisia

Bigarren hiruhilekoko BPGd-a espero zena baino gehiago hazi zen: % 4 igo zen tasa urtekotuan, aurreikusitako % 2,2aren aldean. Horrez gain, aurreko hiruhileko hazkundera gorantz berrikusi zen, % 1etik % 1,5eraino. Portaera on hori barne-eskariaren sendotasunaren ondorio izan zen, hala kontsumoaren nola inbertsioaren aldetik. Beraz, apirila-ekaineko igoerarekin, seigarren hiruhilekoz jarraian egin zuen gora BPGd-ak. Japoniak duela hamarkada bat ez zuela halako bolada gozorik izaten.

### Adierazlearen azalpena

**Barne produktu gordina (BPGd)** herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalan ekoiztitakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
08/21	Japonia	Hileko industria-indizea	% 0.4
08/21	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
08/22	Espainia	Balantza komertziala	--
08/22	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	85.3
08/22	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
08/22	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	10
08/23	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
08/23	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	54.5
08/23	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	55.7
08/23	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	55.4
08/23	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	57.7
08/23	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	53.3
08/23	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	54.7
08/23	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	56.3
08/23	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	55.4
08/23	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	55.5
08/23	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	53.4
08/23	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	54.9
08/23	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
08/23	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	610k
08/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 0.0
08/23	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-1.9
08/24	Frantzia	Enpresen konfiantza	108
08/24	Espainia	Hiruhileko BPGd	% 0.9
08/24	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.3
08/24	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
08/24	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzen salmenta	% 0.6
08/24	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
08/25	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.4
08/25	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0.6
08/25	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	103
08/25	Alemania	IFO enpresen egoera	115.5
08/25	Alemania	IFO aukerak	106.8
08/25	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	125.0
08/25	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 5.8

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK:

Itxiera mistoak burtsa-merkatuetan, positiboak Europan eta gorakorretan eta negatiboak AEBetan eta Asian, negoziazio-bolumen baxuekin, abuztuan ohikoa izaten den moduan. Astearen erdialderaino indizeek indarrez egin zuten gora munduko plaza nagusietan, AEBen eta Hego Korearen arteko tentsio geopolitikoaren ahultzeak eraginda. Ipar Amerikak adierazi zuen kasu bakarrean izango duela kontuan esku-hartze militarra: NBEk eta diplomaziak onartutako zigorrek ez badute arazoa konpontzen. Bestalde, Hego Koreako presidenteak adierazi zuen Trumpen jokaerari gertutik erreparatuko diola eraso egin aurretik. Ingurune makroan, Euroguneko BPGd-aren datuak onak izan ziren, baita AEBetako xehekako salmentak ere. Hala ere, astearen amaieran, burtsek atzera egin zuten, Espainiako atentatuen ondoren mehatxu jihadistaren berragertzearen ondorioz, Trumpek bere ekonomia proposamenak aurrera ateratzeko ezintasunak eragindako AEBetako krisi politikoarengatik eta EBZren eta Fed-en akten eduki bigunagatik. Horrez gain, Erreserba Federaleko hainbat kidek interes-tasen igoera gelditzeko eskatu zuten, inflazio ahularen datu argitaratu berriekin arduratuta. EBZk, bestalde, bere kezka azaldu zuen euroaren igoeragatik, ekonomiaren hazkundean eragina izan dezakeelako.

## ERRENTA FINKOIA:

Joan-etorriko mugimenduak errenta finkoko merkatuetan. AEBen eta Hego Korearen arteko tentsio geopolitikoaren ahultzeak arriskuarekiko beldurra uxatzea eta interes-tasen igoera orokorra eragin zuen astearen lehen zatian. Nolanahi ere, egunak aurrera egin ahala, Banku Zentralen adierazpen bigunagoek, AEBetako ziurgabetasun politikoak eta atentatuek kontrako mugimendua eragin zuten errentagarritasunetan. Murrizketa arina arrisku-primetan eta egonkortasuna kreditu-diferentzietan.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroak balioa galdu zuen dollarraren eta yenaren aurrean, EBZk bere aktetan erakutsi zuen kezkaren ostean. Lehengaietan, urreak pixka bat behera egin zuten, baina azken bi hiletako maximoetan mantendu zen. Petrolioaren prezioak hegakorra izaten jarraitu zuen (% 1,39raino igo zen), Txinako fintze datua ezagutzera eman bazen ere. Horrek beldurra areagotu zuen, petrolio gordinaren munduko kontsumitzaileerik handienak bere eskaria murriztu dezakeelako.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Eur)	167,75	-0,03	-1,05
IBEX 35	10.385,70	1,00	11,05
DJ EURO STOXX 50	3.446,03	1,17	4,73
DJ STOXX 50	3.041,78	0,36	1,04
FTSE	7.323,98	0,19	2,54
S&P 500	2.425,55	-0,65	8,34
Dow Jones	21.674,51	-0,84	9,67
NASDAQ	6.216,53	-0,64	15,48
NIKKEI 225	19.470,41	-1,31	1,86
MSCI EMERGENTES (Eu)	354,15	1,96	10,30
MEXBOL	51.075,46	0,85	11,90
BOVESPA	68.714,66	2,01	14,09
SHANGHAI	3.423,22	1,88	5,34
Rusia Rts Moscú	1.027,85	0,53	-10,80

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,70	0,01	0,06
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,36	-0,06	-0,08
EE.UU 2 AÑOS	1,31	0,01	0,12
ALEMANIA 10 AÑOS	0,41	0,03	0,21
ESPAÑA 10 AÑOS	1,56	0,10	0,18
EE.UU. 10 AÑOS	2,19	0,01	-0,25
ALEMANIA 30 AÑOS	1,16	0,04	0,22
ESPAÑA 30 AÑOS	2,75	0,01	0,13
EE.UU. 30 AÑOS	2,78	-0,01	-0,29
<b>Spread de crédito (pb)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	58,24	0,93	-13,81
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	249,43	0,05	-39,27

\* Erreferentziaren aldaketa Espainiako 10 urterako bonuan

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,18	-0,52	11,79
Yen / Euro	128,41	-0,52	4,40
Libra/ Euro	0,91	0,49	7,05

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	52,47	1,39	-5,31
Oro	1.283,95	-0,42	11,43



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.